

Ramon Barea: «Emakumeen ilusio eta ametsen istorioa da 'Pecata Minuta'»

Zuzendari bilbotarraren lehen filma apirilaren 9an estreinatuko da, Bilbon



XOUSA SIMAL

Ramon Barea eta Aitzpea Goenagak Bilbon aurkeztu zuten atzo *Pecata Minuta* filma.

Kristina Martin / Bilbo

Klausurako komentu batean itxita hogeita bost urte eman duten lau mojak, kanpoko munduak erakarrita, ihesalditxo bat egin nahi dute. Emakume horien ametsak eta arazoak umorez kontatzea da Ramon Barea zuzendutako *Pecata Minuta* lehen filmaren xedea. Filma apirilaren 9an estreinatuko da, Bilbon.

KLAUSURAKO lau moja, ahaztutako komentu batean hogeita bost urte eman ostean, horma horietatik kanpoko mundu ezezagunerako ihesaldia prestatzen hasiko dira. Bitartean, komentuko agintea lortzeko, barruko matxinada bultzatzen saiatuko da moja handinahi bat... Hori da *Pecata Minuta* pelikularen mamia. Ramon Barea aktore eta antzerkigile bilbotarra zuzendari bihurtu da orain, eta Elena Irureta, Loli Astoreka, Ane Gabarain eta Aitzpea Goenaga jarri ditu lau moja abenturazaleen roletan, filma oinarrituta dagoen izen bereko antzerki obran gertatu bezala. Filmaren ekoiztetxea Cine Company izan da.

Iazko maiatz aldera amaitu zuten filmaketa, Gordexolako antzinako moja-etxe batean eta Burgosko Obarenes herrian. Estreinaldia, berriz, Bilbon egingo dute, apirilaren 9an. Filma bukatu zutenetik estreinatu arte igarotako denbora, beraz, luzea izan

da; ia urtebete, alegia. «Banaketa arazoak izan dira atzeratzeko arrazoia», esan zigun Aitzpea Goenagak. «Oso marketin indartsua duten pelikulekin lehiatu behar dugu merkatuan, eta haien artean hutsune bat bilatu behar izan digu ekoiztetxeak», erantsi zuen aktoreak.

Nolanahi ere, hurrengo asteburua arte publiko osoarentzat zabalduko ez den arren, iazko Donostiako Zinemaldian erakutsi zen filma, Zabaltegi sailean, eta arrakasta lortu zuen. Halaber, egunotan aurrestreinaldiak egiten ari dira hedabideen aurrean; esaterako, Madrilan, Bartzelonan eta Valentzian.

Antzezlanaren baina osatuagoa

Pecata Minuta film bihurtu baino lehenago antzezlanaren izen izan zen. «Pertsonaiak eta istorioa izenburu bereko antzezlanean daude oinarri-

tuta, baina filma osatuagoa da. Pertsonaia gehiago daude eta nortasuna garatuagoa dute. Argumentua ere konplexuagoa da, eta eszenatokiak askoz landuagoak», argitu zigun Ramon Barea. Halaber, Barea nabarmendu zuen pelikula kalitatekoa baldin bada emakume aktoreek egindako lanari esker dela.

Abenturazko komedia sentimentala

Nahiz eta filma sustatzeko karteletan komediatzat jotzen den, Barea zehaztu nahi izan zuen. «Genero askoren nahasketa dago *Pecata Minuta*-n. Komedia generoaz gain, komedia sentimentala eta abenturazko filmaren ezaugarriak ere badaude. Musika estiloak ere anitz dira». Filmaketari musika doinuak jartzeaz Hijas del Sol ahizpa ginearrrak arduratu dira. Filmean ere agertzen dira, moja etorkinen rolean. «Denbora osoan kantatzen ibili dira», esan ziguten aktoreek. Eta pelikularen aurkezpenean baietsi zuten.

Bestalde, *Pecata Minuta* filmak mojen bizipenak azaltzen dituenek, Elizaren gaia ukitzea derrigorrezkoa zen: «Gotzainaren interes ekono-

mikoak, apaizaren jarrera... kritika samurra igartzea ez da zaila, baina ez gara oso krudelak izan», aitortu zuen zuzendari bilbotarrak. «Ez dugu saio konplexua eta landua egiteko asmorik izan, soilik emakume batzuen ikuspegia, nahiak, ilusioak, eztabaidak eta ametsak islatu nahi izan ditugu. Azken finean, *Pecata Minuta* ezer baldin bada, emakumeen istorioa da», adierazi zuen.

Lau moja, lau istorio

LAU moja dira *Pecata Minuta* filmeko protagonistak: Elena Irureta Sor Rufinaren rolean ari da, Loli Astoreka Sor Asun da, Ane Gabarain Sor Rosarito abeslari frustratua, eta Aitzpea Goenagak, azkenik, Sor Remediosen rola joatzen du.

Arrazoi eta zirkunstantzia desberdinek bultzatu zituzten lau protagonistak komentuan sartzeko. Elena Iruretak—Sor Rufina pelikulan—gizonezko inguratua igaro zuen haurtzaroa. Nerabea zenean, nortasun krisialdia izan zuen, eta, haren ondorioz, bizitza soziala utzi eta komentuan sartzeko erabakia hartu zuen. Eliza gizonezkoen esku egotea arbuiatzen du, eta apaiza izatea du benetako desioa.

Loli Astoreka amatasuna frustratua duen Sor Asunen rolean aritzen da. Ihesaldian parte hartzen duen arren, harrapatua izateko beldur da, eta nahiago du aginduak jaso eman baino.

Ane Gabarain Sor Rosarito da filmean, eta artista sena izan bazuen ere, loditzen hasi eta moja sartu zen. Euskadiko Aktoreen Batzarrak interpretaziorik onenaren saria eman zion.

Aitzpea Goenagak Sor Remediosen rola betetzen du. Txikitatik zeukan moja izateko bokazio argia, eta santutasuna lortzea du helburu nagusia. Lau-rak, munduak eskaini diezaiekeenak liluratuta, ihesaldia prestatzen ibiliko dira film osoan.